

**Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ) ordaintzeko diru-laguntzak emateko ordenantzaaren hasierako onarpena.**

Udalbatzak, bi mila eta hamazazpiko maiatzaren hogeita bostean egindako osoko bilkuran, besteak beste, honako erabakia hartu zuen:

LEHENENGOA.- Hasieran onartzea Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga ordaintzeko diru-laguntzak emateko ordenantza arautzailea.

BIGARRENA.- Hogeita hamar eguneko epea irekitzea espedientea jendaurrean jartzeko eta interesdunei entzuteko, BAO-n, Udaleko Ediktu Oholean eta udalaren webgunean iragarkia argitaratuz. Aipatu epean espedientea ikusgai egongo da udal bulegoetan, interesdunek egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ahal izateko bere eskubide eta interesen defentsan.

HIRUGARRENA.- Erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, ordura arte behin behinekoa zen erabakia behin betikotzat hartuko da, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49.c) artikulua 2. pasartean xedatutakoaren arabera.

Valle de Trápaga-Trapagaranen, 2017ko ekainaren 8an.

ALKATEA

Izptua.: Xabier Cuéllar Cuadra